

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aralar taldeko bozeramaile Aintzane Ezenarro Egurbidek, indarrean den Erregelamenduaren babesean, "Frankismoa kondenatzeko" hurrengo **LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA** aurkezten du, **osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin**:

ZIOA

Uztailaren 18an 75 urte bete dira Espainiako armada gobernu demokratikoaren kontra altxatu zela. Ondotik, hiru urteko gerra zibila eta 40 urteko diktadura etorri ziren. Gaur gaurkoz estatu espainiarrak gertaera hura kondenatu ez duenez, eta indarkeria sasoi hark eragin zituen biktimek bestelako indarkeria jasan duten biktimek besteko errekonozimendu instituzionala merezi dutelako, eta Gerra Zibilaren eta Erbestearen Artxiboak (Archivo de Guerra Civil y Exilio) aldarrikatzen duenari jarraituz, hurrengo legez besteko proposamena aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu dadin:

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

1- Eusko Legebiltzarrak Espainiako gobernuari eskatzen dio altxamendu militarra eta diktadura frankista kondena ditzala.

2- Era berean eskatzen dio, zuzenbide osoz nulutzat jo ditzala gerra zibilean eta gerraren ondorioz emandako sententzia errepresibo guztiak bai eta, auzitegi berezien babesean, hiritarren askatasunaren alde egindako jarduerengatik hiritarrei jazartzeko, erreprimitzeko eta zigortzeko erabilitako epai eta jarduera judizial guztiak ere. Hala, aitorten horri beharko lukeen legezko bidea eman diezaiola exijitzen dio.

3- Azkenik, Eusko Legebiltzarrak biktima izaera aitortzen die 1936ko uztailaren 18ko altxamenduaren ondoriozko indarkeriaren eta ondotik etorri ziren gerraren eta diktaduraren biolentzia pairatu zuten pertsona guztiei, eta motibazio edo arrazoi politikoak eragindako indarkeria guztien biktima direnez, errekonozimendu eta ordaintza instituzionala merezi dutela dio.

Gasteiz, 2011ko uztailaren 18an

Aintzane Ezenarro Egurbide

Aralar taldeko bozeramailea